



INTXAURRONDO BILERAREN LABURPENA

Eguna / Día: 2015 -10 - 26
Ordutegia / Horario: 19:00
Tokia / Lugar: Intxaurrondo Kultur Etxea



DEITUTAKOAK:

Intxaurdi AE/AV
IZBE
Agrupación Marrutxipi

Udal ordezkari politiko eta teknikoak

BERTARATUAK:

Intxaurdi AE: Lehendakaria eta idazkaria.

IZBE: Lehendakaria eta diruzaina.

Udaleko Partaideak

Alfonso Gurpegi, Zinegotzia
Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia
Miguel Angel Diez Zinegotzia
Juan Ortiz de Zarate, Teknikaria
Jurdana Arruabarrena, Teknikaria
Olatz Mújika, Teknikaria

HELBURUA:

Intxaurrondon hobekuntzak egiteko premiak eta proposamenak jasotzea, segimendua egitea eta auzoarekin lotutako proiektuei buruzko informazioa ematea.

Landutako gaiak

1. Monseko aparkalekua
2. Zubiaurre pasealekuaren eta Monsen arteko ur hoditeriak aldatzeko proiektua.
3. Txaparrene pasealekua:
4. Zabaltoki igarobidea:
5. Lizardi kalea
6. Intxaurrondoko Ikastolako Berdegunea
7. Letaman plaza:
8. Jesuitak:
9. Zarategiko zuhaitzak
10. Inausketarik eza Intxaurrondo Berrin
11. Zebrabideak
12. Barandak
13. Bankuak

Gaien azterketa

1. MONSEKO APARKALEKUA

Zoladuran dauden sustraiei erruz, ezin da aparkalekua erabili.

Mantentze sailak proposamen bat idatzi du: egungo zuhaitzak kendu beharko lirateke, zoladura berritu eta atzera zuhaitzak landatu eraikitako zuhaitz txorko berrietan. Ez dira zuhaitz guztiak berriz landatuko etorkizunean argitasun arazoak saihesteko.

2. ZUBIAURRE PASEALEKUAREN ETA MONSEN ARTEKO UR HODITERIAK ALDATZEKO PROIEKTUA.

Obra geldirik dago, kalea moztuta dago eta ez da garbitzen.

Añarbeko proiektu bat da, Proiektuen eta Obren gainbegiratzearekin. Urriaren 30ean, ostirala, Añarbeko Administrazio Kontseilua bilduko da. Ordezkariek proiektuaren egoeraren berri galdetuko dute.

Proiektu eta Obrei jakinaraziko zaie obren gunean dagoen garbitasunik eza.

3. TXAPARRENE PASEALEKUA

Guneko billa batzuetan egin den inausketaren ondorioz, adarrak jaso dituzten kamioiek oinezkoen guneko galtzada harriak altxatu dituzte. Adinekoek eta bizikletek istripuak izan ditzakete.

Mantentze lantaldeak gunea berrikusiko du, egon litezkeen konponketak zein diren jakiteko.

Gune honetan bi babesle jarri dira Intxaurrondo kalearen sarreran. Elkarteari iruditu zaio babesleen neurria gehiegizkoa dela.



Txaparrene kaleko geralekua arrisku handikoa da oinezkoentzat eta txirrindularientzat, txirrindulari batzuk abiada handia ibiltzen baitira. Istripu larri batzuk gertatu dira jadanik. Proposatzen dute zabaltasun handiagoa ematea geralekuari edo abiadura jaisteko gailuren bat jartzea.

Mugikortasuna aztertzen ari da zer aukera dauden egoera hobetzeko, jakin baitakite gune horrek zer arrisku dituen.

4. ZABALTOKI IGAROBIDEA

Elkartek proiektuaren egoeraren berri galdetu du.

Proiektuen eta Obren proiektu bat da; haiei galdetu beharko zaie zein den egoera. Proiektuak 2015eko aurrekontu sail bat du; beraz, epe labur/ertainean egingo da.

5. LIZARDI KALEA

Lizardi kaleko arrapaletara ematen duen irteera (autoeskola eta parrokia mailan) arriskutsua da, oinezkoentzat nahiz ibilgailuentzat; beharrezkoa da ispilu batzuk jartzea autoak gorantz datozen ikusteko, barandaren altuerak Lizardi kaletik igotzen diren gidarien ikusgaitasuna oztopatzen baitu.

Arazoa jakinaraziko zaio Mugikortasunari.

6. INTXAURRONDOKO IKASTOLAREN BERDEGUNEA (APARKALEKUAREN ETA IKASTOLA IXTEKO ATEAREN ARTEAN)

Bada berdegune bat espaloiarekiko paralelo, ezertxo ere eskaintzen ez duena eta arriskutsua izan daitekeena neska-mutilentzat. Elkartek proposatu du hutsunea betetzea eta berdegunea kentzea, txakurren gorozkiak metatzen diren gunea baita.

Proposamena Parke eta Lorategietara bidaliko da, haiek balioetsi dezaten.

7 LETAMAN PLAZA

Aparkalekua kaotikoa da, eta herri plaza gisa erabiltzen den erdia hartzen du. Gaztetxeko gazteek banku batzuk jartzen dituzte aparkatzea eragozteko, baina desagertu egiten dira. Beharrezkoa da aparkalekuaren seinaleztapena berrikustea, baita erabilera anitzetarako egiten den guneen banaketa ere.

Gai hau Mugikortasunera bidaliko da.

8 JESUITAK

Auto ilaren arazoak eta Ategorrietako Galtzara Zaharraren erabilera desegokiak bere horretan dira, erabiltzaileen edo Jesuitetako gurasoen erruz. Bidegorriaren erabilera arriskutsua da ordu jakin batzuetan.

Arazoa jakinaraziko zaio Mugikortasunari.

9. ZARATEGIKO ZUHAITZAK

Eginiko obraren ondoren, ez dira zuhaitzak berriro landatu.

Aztertu beharra dago Parkeak eta Lorategiak aurrekonturik ote duen, baina, printzipioz, ez da aurreikusi gunean zuhaitzak berriro jartzea.

10. INAUSKETARIK EZA INTXAURRONDO BERRIN

Baratzategi kalea, Mons Pasealekua, Arjel Pasealekua, Baratzategiko jardingunea 31, 33. Buztintxulo kalea 11 eta 31-33 zk. artean. Arjel pasealekua: zume negarti izugarri handi eta ihar bat moztu zen (oinarria eta sustraiak han dira). Orain hilabete batzuk mota bereko bi zuhaitz landatu ziren, bat kaleko ertzetik 9 urratsetara eta bestea, 7 urratsetara. Berdegunearen erdia hutsik uzten du (¿?).

Adar handi, ihar batzuk daude, modu arriskutsuan zintzilik hainbat gunetan.

Zuhaitz moztu batzuk Baratzaregi kalean; gutxienez hiru zuhaitz berriro landatu gabe. Zuhaitz mota honek arazo gehiago ematen ditu (sustrai sendoak, hostoek likido likatsu bat askatzen dute eta arazoak eragiten dizkiete autoei, adar itzelak, etab...).



11. ZEBRABIDEAK

Igaroleku batzuk berrikusi beharko lirateke; espaloien beheratzeak zain daude duela zenbait urtetatik.

12. BARANDAK

- Buztintxuloko kaleko baranda pintatzea falta da.
- Barandak falta dira hainbat tokitan: adibidez, Baratzategi, 21en, bertako eskailera guztietan, Intxaurrendoko Kultur Etxera bidean.

13. BANKUAK

Banku batzuk margotu edo bernizatu behar dira (egurra hondatuta edo goroldioz betea dago).

14. HESIAK

Kendu egin dira Zarategi pasealekuan, Baratzategi kalean, Mons pasealekuan eta Otxoki Pasealekuan egoera onean zeuden hesiak; hesiek Otxoki Parkea banantzen zuten horrenbeste trafiko duen galtzadatik. Gune horretan ez da 50 km/h-ko abiadura errespetatzen, batez ere zuzenean. Gune horretako espaloia estua da.

15. BUZTINTXULO 1EKO UR HARGUNE BATEKO TAPA GORRIA FALTA DA.

16. INTXAURRONDOKO KULTUR ETXEA

sabai leihoetan segurtasun kristal batzuk hautsi dira, eta handik hurbil bi zuhaitz falta dira.
Sabai leihoak konpondu dira.

17. SAIHESBIDEKO ZARATA

Metroaren obrak egin zirenean, Zilegi Basoen Parketik sartuz, Zarategi kalean, saihesbideko zarata arintzeko pantaila lanak egiten zituzten zuhaitz batzuk moztu ziren. Ez da inolako "pantallajerik" atzera jarri, eta etxebizitza gune horretan duten pertsonen kexa ugari jaso dituzte.

18. ZARATEGI KALEKO ETXEBIZITZETAKO AUZOKOAK MONS PASEALEKUAREKIKO BIRIBILGUNETIK GERTU

Etxebizitza berri batzuen obren ondorioz, modulu batzuek Monsera ematen duen espaloiaren igarobidea moztu egiten dutela aurkitu dute, eta gune osoa inguratu behar dute, zuzenean jaitsi ordez. Ustez, kexa bat aurkeztu zuten.

19. GARBITZEN EZ DIREN EDO IRTEERARIK EZ DUTEN ISURBIDEEN EDO EURI UREN JASOTZAILEKIN DAUDEN ARAZOAK

Adibidez:

□ Baratzategi, 33: sareta luzea ataripera sartu aurretik.

□ Buztintxulo, 69ko atzealdeko kantoia. Sareta karratua: butxatzen denean, auzokoek garbitu behar izaten dute.

Behin bakarrik garbitu da urte askoan.

20. ESPALOIA BEHERATZEA

Beltran Pagola kalea, María Dolores Goia Plazarako larrialdiko sarrera: espaloia ez dago beheratuta, oholtzar bat dago eta tokiko asfaltoa hondatuta dago.

21. ARAZOAK INTXAURRONDOKO KULTUR ETXEAN EKITALDIAK DAUDENEAN

Baratzategi kalearen eta Otxoki kalearen gurutzeguneko biribilgune txikian auto ilarak eta aparkatzeko arazoak sortzen dira. Ibilgailuak bueltara ibiltzen dira aparkatzeko: proposatu dute adierazteko aparkatzeko aukera dagoela Baratzategiko amaieraraino joanez gero, Arjel pasealekutik eta Otxoki pasealekutik ezkerretara joanez gero.

22. GAZTELUKO OBRA

Azkenik, Udaletxeko mantentze teknikariek Gaztelurekin zerikusia duten berritasunak aurkeztu dituzte: obra azaroan hasiko da, eta bi hilabete eta erdikoa izango da. Komunikazio kanpaina bat egingo da obrarekin zerikusia duten alderdiak azaltzeko.